



Haur Eskola ofizialki inauguratu zuten herenegun Baliarrainen

BI HAUR ▶ Eusko Jaurlaritzako eta herriko Udaleko ordezkariak izan ziren; bi haur izango dira eskolan ▶ 5



Alkatea eta Jaurlaritzako ordezkaria zinta mozten, Haur Eskolako bi umeen artean. MADDI SOROA



Babarrun sukaldaririk onenak, Tuterakoak

TOLOSA ▶ Bergarak eta Gilek irabazi zuten herenegun lehiaketa; artzain txakurretan Zuazo arabarra izan zen irabazlea; dantza jaialdi arrakastatsua izan zen ▶ 2

TOLOSA ▶

Murtziatik punturik gabe eta haserre

Hegoaldeko epailearen jarrera salatu du ▶ 3

AMASA ▶

Ugaitz Artola amasarra izan da mendiatloiko aurtengo irabazlea

72 parte-hartzaile izan zen igandean; nesketan Ana Yunta izan zen lehen ▶ 4

LEITZA ▶

Jurramendin eta bodegan izateko aukera

Iganderako egunpasa antolatu dute ▶ 7



HITZA

BABARRUN ASTEA ▶

Babarrunak prestatzen onenak, Bergara eta Gil tuterarrak

21 sukaldarik hartu zuten parte; artzain txakur lehiaketan Jon Zuazo arabarrak irabazi zuen 'Sorgin' txakurrarekin



Artzain txakur lehiaketan parte hartu zuten artzainak udal agintariekin lurremendirigandean. HITZA

ERREDAKZIOA

Tuterara joan zen Tolosako Babarrunaren XVIII. Lehiaketa Gastronomikoaren sari nagusia, Beterri elkarteko Iñaki Bergara eta Alejandro Gil izan baitziren irabazleak. Beraiek eraman zuten txapela, garaikurra eta 200 euroko saria. Lehen aldiz hartzen zuten parte lehiaketan eta goiz osoan aritu ziren babarrunak prestatzen «denbora eta pazientzia» izanik bere sekretu bakarra. Oinarriko osagaiak besterik ez zituzten erabilik, odolki, txorizo eta azarik gabe.

Guztira 21 sukaldarik hartu zuten parte, Hego Euskal Herriko lau probintzietatik eta Kantabriatik etorriak. Eskualdeko lehenak Bixente Artola ibartarra eta Floren Altuna amaroztarrak izan ziren. Aurkezpen onena Zarautzko Novoak eta Miclek lortu zuten. Epaimahaia

Martin Berasategi, Hilario Arbelaitz eta Alberto Elorza sukaldariek osatu zuten.

Gure Kaiola elkarteak antolatutako lehiaketa honekin batera bazkari herrikoia izaten da. Atzo 500 lagun bildu ziren, inoiz baino gehiago, eta «jende gehiagorentzako tokirik ez» zegoenez, muga jarri behar izan zuten. 92 kilo babarrun, 50 kilo odolki, 45 kilo txorizo eta 35 kilo saiheski erabili zituzten bazkarirako. Ondoren tiramisú, teilak eta zigarrotxoak izan zituzten. Antolatzaileak «oso pozik» agertu ziren igandeko festarekin.

Artzain txakurrak

Eguerdian berriz, VII. Artzain Txakur Lehiaketa egin zen Iurreamendiko belazeetan. Sei parte-hartzaile izan ziren eta azkenean sari nagusia Arabarra joan zen. Jon Zuazok irabazi

SAILKAPENAK ▶

BABARRUN LEHIAKETA

Prestaketa.

Izena	Herria
1. Iñaki Bergara-Alejandro Gil Tuter	Bilbo
2. J.A. Laguno-Ana Arana	Bilbo
3. Bixente Artola-Floren Altuna	Ibarr

Aurkezpena.

Izena	Herria
1. Javier Novoa-Mijail Micle	Zarautz
2. Patxi Lago-Javi Cano	Donostia
3. Ricardo Arco-J.A. Balerdi	Cantabria

ARTZAIN TXAKURRAK

Izena	Herria
1. Jon Zuazo (Arg)	Araba
2. Andres Atxa (Txato)	Eibar
3. Jose Mari Bereikua (Lau)	

zuen *Sorgin* txakurrarekin. Ondoren Andres Atxa *Txato* txakurrarekin eta Jose Mari Bereikua *Laurekin* sailkatu ziren.

IRITZIA ▶ ITZIAR URRUZOLA (DANTZARIA)

Saio pozgarria benetan

Benetan pozgarria da Udaberri, Oinkari eta Alurr dantza taldeko dantzari, musikari —profesionalak barne— eta antolatzaile guztiek elkartasun bete-betean saio bat eskaini zigutelako. Zer esanik ez, Beotibar frontoira hurbildutako herritarrek ikuskizunean jarritako giro bero eta txalo zaparradengatik.

Tradiziozko euskal dantzan oinarriturik, gure betiko dantza, musika, jantzi eta tresna maitatuenetik hasi eta asmo berrien bila abiatu gara. Egun, dauzkagun baliabideei esker, gauza berri asko sortzeko aukerak ditugu, adibidez, Oinkariko dantzariak *Agurra* argia eta izararen artean dantzatu zuenean, itzala majiko batek gure ikuspegia lau haizeetara zabaltzera gonbidatuz. Izan ere, dantzaren munduan pixka bat murgiltzen bagara, ballet klasikoan adibidez, dituen pauso edo ariketa guztiak munduko herrialde ezberdin bakoitzetik jaso eta eboluzionatutakoak dira. Aipatzeko da balleteko muriska, entresat edo beste zenbait pauso euskal dantzetatik jasoak direla. Ballet klasikoak ere garai berrietara begira gauza berriak sortzen joan da. Honela, dantza garaikidea bezalako disziplina ezberdinak barneratuz, obra klasikoetan bertsio berriak sortuz, eta noski, garai desberdinetako musika, zinema eta baliabide guztiak eszenatokia jarriz. Ikuspegi horretatik, euskal dantzak ere bide berriak hartu zituen eta bide bakoitzak estilo bat landu du. Edu Muruamendiarek bere estilo propioa sortu du. Nahiz eta gizon eta emakumeek dantzatzeko prestatuak izan, bere koreografiak adierazten digu gizonen dantzarietatik sortu eta sortuko dituen indar eta nortasun handiko koreografiak dituela buruan.

Txikitandik, dantza eskolak emateko garaian gure hizkuntza maitatua bezala tradiziozko euskal dantzak herri giroan bizitzeari garrantzia emanez oreka mantendu ahal izango delakoan sinisten dut, haur, neska-mutil gazte, gizon-emakume eta adinduen artean, guztien artean, gure altxorra gorde, bizi eta plaza-ratuz. Nahi adina proiektu elkarlanean aurrera eraman ahal izateko emakume dantzariak bezain besteko gizonen dantzarien premia dago. Nire zorionik beroenak Beotibar frontoian parte hartu zuten guztiak.

Parte-hartzaileak: Alurr, Oinkari eta Udaberri dantzari taldeak. **Eguna:** azaroak 20. **Lekua:** Beotibar pilotalekua.



Ibarrako Alurr dantza taldearen saioko irudi bat. HITZA



Ehundaka lagunaren protesta

POLITIKA ▶ Herenegun iluntzean ehundaka lagun elkartu ziren Trianguloan hainbat herritarrek *2.500 tolosar desagertuta? Eman hitza herriari* lelopean deitutako manifestazio isilean. Mobilizazio honekin azken udal hauteskundeetan Tolosa Bizirik plataformak lortutako 2.500 tolosarren botoak udaletxean ordekatu gabe egotea salatu nahi zuten. Plataformako kideak bertan ziren, baina «era guztietako jendea» bildu izana baloratu dute bereziki manifestaldiaren antolatzaileek. «Udaletxean kolore guztiak ordezkaturak» egon arte lanean jarraituko dutela erantsi dute. **DIARIO VASCO.**

ASTEBURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.

UCAM Murtzia-Hegoalde	7-2
Saillkapena ▶	
1. Femesala Elx	27 puntu
2. Futsi Navalcarnero	23 puntu
3. UCAM Murtzia	22 puntu
4. Foticos Zaragoza	21 puntu
5. Ourense	18 puntu
6. Club Teledeportivo	16 puntu
7. Ketal Fuenlabrada	16 puntu
8. Diamante Rioja	12 puntu
9. Mostoles	11 puntu
10. Gironella	11 puntu
11. Soto del Real	10 puntu
12. Hegoalde Tolosa	7 puntu
13. Arturo Eyres Valladolid	6 puntu
14. Goierri Urrebu	4 puntu
15. Valdetres Meiras	4 puntu
16. Cabanyal Valencia	1 puntu

Nazional Maila A.

Ibarra-Jarrilleros	0-1
--------------------	-----

Nazional Maila B.

Laskorain-Nogales	2-4
-------------------	-----

Lurraldeko Maila.

Oiarzun-T.Lakuntza	3-1
--------------------	-----

1. Maila.

Esklapiok B-Laskorain	1-3
-----------------------	-----

2. Maila.

Laskorain-Amara	4-2
-----------------	-----

Nesken Liga.

Idiazabal-Tinta Billabona	0-3
---------------------------	-----

Goierri-Laskorain	4-6
-------------------	-----

Jubenilen Maila.

Lauburu-Sestao	7-1
----------------	-----

ESKU PILOTA

ELKARTEEN ARTEKOA

Kadeteen 1. Maila.

Elordi Herringintza-Olalde	22-08
(Artola-Ibarguren)	

Gazteen 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Hernani	16-22
(Koldo Galarraga)	

Nagusien 1. Maila.

Aurrera Saiaz-Ozkarbi	01-22
(Imanol Pastrain)	

Anaitasuna-Aurrera Saiaz	22-20
(Mikel Beloso-Jabier Oteiza)	

Nagusien 3. Maila.

Gure Txeru-Aurrera Saiaz	05-22
(Igor Aranzabe-Eneko Galarraga)	

Lagunak-Aurrera Saiaz	11-22
(Ugaitz Renobales-Aimar Galarraga)	

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Mutriku-Tolosa	0-3
Saillkapena ▶	

1. Tolosa	24 puntu
-----------	----------

2. UPV/EHU	22 puntu
------------	----------

3. Ordizia	22 puntu
------------	----------

4. Touring	19 puntu
------------	----------

5. Arexabaleta	19 puntu
----------------	----------

6. Zarautz	18 puntu
------------	----------

7. Real Union B	18 puntu
-----------------	----------

8. Hondarribia	18 puntu
----------------	----------

9. Orioko	18 puntu
-----------	----------

10. Mutriku	18 puntu
-------------	----------

Nesken Liga.

Vasconia-Tolosa	0-3
Saillkapena ▶	

1. Añorga	25 puntu
-----------	----------

2. Luberrri	25 puntu
-------------	----------

3. Ostadar	19 puntu
------------	----------

4. Tolosa	18 puntu
-----------	----------

5. Vasconia	11 puntu
-------------	----------

6. Usurbil	11 puntu
------------	----------

7. Groseko	3 puntu
------------	---------

8. Urnieta	3 puntu
------------	---------

Lurraldeko 1. Maila.

Gazte Berriak-Aurrera	2-2
-----------------------	-----

Tolosa B-Martutene	0-1
--------------------	-----

Saillkapena ▶	
---------------	--

1. Allerru	23 puntu
------------	----------

2. Martutene	21 puntu
--------------	----------

3. Euskalduna	19 puntu
---------------	----------

15. Ordizia	8 puntu
-------------	---------

16. Tolosa B	5 puntu
--------------	---------

Lurraldeko 2. Maila.

Lasarte Oriá-Amaroz	3-4
---------------------	-----

Inburre-Lazkao	3-0
----------------	-----

Saillkapena ▶	
---------------	--

1. Sanpedrotarra	20 puntu
------------------	----------

2. Danena	15 puntu
-----------	----------

3. Usurbil	14 puntu
------------	----------

4. Amaro	12 puntu
----------	----------

5. Lazkao	10 puntu
-----------	----------

6. Inburre	9 puntu
------------	---------

7. Lasarte Oriá	6 puntu
-----------------	---------

Jubenilen Euskal Liga.

Tolosa-Durango	4-1
----------------	-----

Jubenilen 1. Maila.

Texas Lasartearra-Inburre	1-1
---------------------------	-----

Kadeteen Euskal Liga.

Real Sociedad-Tolosa	1-0
----------------------	-----

FUTBOL 7

1. Maila.

La Kabutzia-Ibarrako GA	3-4
-------------------------	-----

Kroms-Lanbroa Dickens	6-2
-----------------------	-----

Saillkapena ▶	
---------------	--

1. Robers	24 puntu
-----------	----------

2. Zibibo Dance Club	22 puntu
----------------------	----------

3. Knauf-Dec. Nuñez	20 puntu
---------------------	----------

11. Ibarako Gazte Asanblada	9 puntu
-----------------------------	---------

12. Callejo Lanperna	9 puntu
----------------------	---------

13. Lanbroa Dickens	8 puntu
---------------------	---------

14. Cesar Rueda Seguros	6 puntu
-------------------------	---------

15. Irish Guinness	5 puntu
--------------------	---------

16. St. Etienne Cafe Bar	2 puntu
--------------------------	---------

2. Maila A.

Pub Egarrí-Bar Shanti Kirolak	2-3
-------------------------------	-----

Saillkapena ▶	
---------------	--

1. Pub Egarrí	22 puntu
---------------	----------

2. Ekin Fisioterapia Zentroa	20 puntu
------------------------------	----------

3. Disco Bar Egur	19 puntu
-------------------	----------

4. Bar Shanti Kirolak	19 puntu
-----------------------	----------

14. Papeleria Tamayo	5 puntu
----------------------	---------

15. Cabo Rojo-Pyxies	4 puntu
----------------------	---------

16. Nin Climatizacion	3 puntu
-----------------------	---------

ZESTA-PUNTA

ELKARTEEN ARTEKO TXAPELKETA

Kadeteak.

Zumaia 2-Beotibar 1	30-29
(Telleria-Izagirre)	

Gazteak.

Donostia Jai Alai-Beotibar 1	35-27
(Orrantia-Mujikka)	

Nagusiak.

Beotibar 1-Donostia Jai Alai 3	35-29
(Artete-Errondosoro)	

Gazteleku 2-Beotibar 2	35-27
------------------------	-------

(Trabazos-Gonzalez)	
---------------------	--

SANTA LUZIA TXAPELKETA

Alebinak.

Lopez-Uranga/Odrizola-Zaldua	15-05,15-07
------------------------------	-------------

Infantilak.

Gabarain-Bildarratz / Sanchez-Izagirre	13-15, 08-15
--	--------------

TOLOSA ▶ ARETO FUTBOLA

ERREDAKZIOA

Punturik gabe eta haserre itzuli da Hegoalde Murtziatik (Espainia). Ez haserre emaitzaren gatik (7-2), epailearen jarreragatik baizik: «Gauza bat da punturik gabe etortzea; bada-kigu lehenengo zatian akatsak izan ditugula, baina bigarrenen ondo aritu gara. Beste gauza bat da, ordea, haserre etorri behar izatea epaileak nahi izan duena egin duelako», zioen partida amaieran Maite Argote bigarren entrenatzaileak. Hasierako 10 minututan bikain aritu ziren tolosarrak. 11. minututik aurrera, ordea, eta defentsa arazoak zirela eta, kontzentrazioa galdu zuten jokalariek, eta partida okertu

Punturik gabe, eta haserre

Murtziaren aurkako partidaren (7-2) epailearen jarrera salatu dute Tolosakoek

egin zitzaizen. Bigarren zatia, baina, «itsusiago» zeterren.

Hegoalde ongi jokatu ez baitzuen jokalaria iraindu. Murtziako bi jokalaririk eta entrenatzailea ere joan ziren epailearen gaudak ez zirela horrela izan azaltzeko, baina hark bere horretan jarraitu zuen». Hegoaldekoak denboraldi amaitu artean Busquet beren partidetan ez egoteko eskakizuna egingo du. Egunotan jakinago dute Lopezek zenbat partidako zigorra jasoko duen.

erabili zituen Hurtadoren aurka. Lotsagarria iruditu zaigu epailearen jokaera. Maiderrrek ez baitzuen jokalaria iraindu. Murtziako bi jokalaririk eta entrenatzailea ere joan ziren epailearen gaudak ez zirela horrela izan azaltzeko, baina hark bere horretan jarraitu zuen». Hegoaldekoak denboraldi amaitu artean Busquet beren partidetan ez egoteko eskakizuna egingo du. Egunotan jakinago dute Lopezek zenbat partidako zigorra jasoko duen.

erabili zituen Hurtadoren aurka. Lotsagarria iruditu zaigu epailearen jokaera. Maiderrrek ez baitzuen jokalaria iraindu. Murtziako bi jokalaririk eta entrenatzailea ere joan ziren epailearen gaudak ez zirela horrela izan azaltzeko, baina hark bere horretan jarraitu zuen». Hegoaldekoak denboraldi amaitu artean Busquet beren partidetan ez egoteko eskakizuna egingo du. Egunotan jakinago dute Lopezek zenbat partidako zigorra jasoko duen.

MURTZIA ▶ 7

HEGOALDE ▶ 2

UCAM Murtzia. Maria Valverde, Irene Hurtado, Ana Hurtado, Yolanda Contreras, Carmen Campos, Monica Garcia, Sonia Candela, Ana Bernal, Maria Gomez, Carmen Garcia, Sonia Bernal eta Fatima Cervera. Entrenatzailea: Manuel Muñoz.
Hegoalde Tolosa. Lurdes Zuriarrain, Itziar Aldezabal, Isa Barrio, Maider Lopez, Amaia Azpilikueta, Nerea Salazar, Arrate Martinez, Edurne Agirretxe, Miriam Arana eta Esther Videra. Entrenatzaileak: Virginia Amilibia eta Maite Argote.
Golak. 1-0: Contrerases (03m.); 2-0: Hurtadok (03m.); 3-0: Contrerases (04m.); 4-0: M. Garciak (14m.); 5-0: Candelak (15m.); 5-1: Salazarrek (30m.); 6-1: Gomezek (33m.); 6-2: Lopezek (37m.); 7-2: Candelak (38m.).

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.: 616 93 17 88

INMOBILIARIA ETA ASEGUROAK
ETXESAGASTI

Altzo. 85 m2-ko bi etxebizitza erreformatuak. 707m2-ko lursaila. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarra. 69 m2 eta trastelekua duen etxe eraiki berria. Egongela, sukaldea eta bi logela. Igoailuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ibarra. 90 m2-ko etxebizitza, egongela, sukaldea, 2 logela, 2 bainugela eta jantzigelarekin. Kanpoaldera begira. Eguzkitsua. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Irura. Etxebizitza berriak salgai: egongela,

sukaldea, 2 logela eta bainugela. Terraza eta garajarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ordizia. 50m2-ko etxebizitza polita salgai. 2 logela, berrikuntza egin berria. Estreinatze. 25.000.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ordizia. 80 m2-ko etxebizitza salgai. Hiru logela. Erabat berritua, altzariz hornitua. Igoailuarekin. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Ordizia. 291 m2-ko txaleta salgai. 3 solairukoa. 1.037 m2-ko lursaila. Etxesagasti. 943 69 68 56

Tolosa. 90m2-ko etxebizitza salgai Foru etorbidean. 40m2-ko terraza, eta trastelekua. Igoailuarekin. Sartze prest. Etxesagasti. 943 69 68 56
Tolosa. 85 m2-ko etxebizitza. 3 logela. Berritze. Igoailuarekin. 36.000.000 pezeta (negoziazarriak). Etxesagasti. 943 69 68 56.
Villabona. 90 m2-ko etxebizitza eraiki berria salgai. Egongela, sukaldea, 3 logela eta 2 bainugela. Garajea aukeran. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Villabona. 70m2-ko etxebizitza salgai. 2 logela erabat osaturik. 32.640.000 pezeta. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. Etxebizitza polita, erabat berritua. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Kanpoaldera begira. Etxesagasti. 943 69 68 56.
Zizurkil. 61 m2-ko eta 8 m2-ko trastelekua duen pisu altua. Egongela, sukaldea, 2 logela eta bainugela. Erabat berritua. Kanpoaldera begira. Altzariek. Etxesagasti. 943 69 68 56.

AMASA ▶ KIROLA



Mendikute, Aperribai, Ibarbia, Artola, Idigoras eta Yunta. HITZA

Ugaitz Artola amasarra txapeldun

XII. Mendiatioan, 72 parte-hartzaileen artean lehenengoa izan zen herenegun

IMANOL GARCIA

Guztira 72 parte-hartzaile izan ziren —4 neska eta 68 mutil— herenegun egindako Amasako XII. Mendiatioan. Sari banaketan hiru maila ezberdin izan ziren. Mutiletan lehenengoa Ugaitz Artola amasarra izan zen 53 minutu eta 11 segundoko denborarekin. Bigarrena Jon Aperribai arrasatearra izan zen, 53 minutu eta 46 segundorekin. Aitor Idigoras gasteiztarra izan zen hirugarrena, 54 minutu eta 31 segundorekin.

Nesketan, irabazlea Ana Yunta irundarra izan zen, ordua, 9 minutu eta 40 segundorekin. Bigarrena Aitziber Ibarbia zizurkildarra izan zen, ordua, 15 minutu eta 47 segundorekin. Ondoren, Dina Mendikute hernialdearra sail-

katu zen, ordua, 15 minutu eta 55 segundorekin. Herritarren artean, Ugaitz Artola izan zen, noski, lehenengoa. Bigarrena Eneko Gurrutxaga izan zen, ordua, minutu bat eta 7 segundorekin. Hirugarrena Karlos Gallaraga izan zen.

Giro oso ona izan zen proban zehar eta eguradiak ere lagundu zuen. Aurten ibilbidea herri muinetik gehiago pasatzen zen eta ikusleagoak gehiago gozatu du eta gehiago animatu ditu kirolariak.

Lehen sailkatuek bere garaiak eta sariak izan zituzten, baina parte-hartzaile guztien artean beste sari batzuk ere zozketatu ziren: oilaskoak, kirol material, txanpan botilak... eta saririk preziatuena: arkumea. Askok, beraz, proban parte-hartzeaz gain, ez ziren esku hutsik joan etxera.

VILLABONA ▶ IKASLE EGUNA



Lagunarteko jokoak izan ziren buruturiko ekitaldietako bat. I. GARCIA

Antolatzaileak gustura Ikasle Egunarekin

Larunbatean Villabonan egin zen Ikasle Egunaren balorazio ona egin dute Ikasle Abertzaleek. Lau mila lagun inguru izan ziren eta jende gehiago espero bazuten ere gustura daude antolatzaileak, bai egunaren giroarengatik, bai festaren martxa onarengatik. Ikasle Abertzaleek eskerrak eman nahi dizkiote bai Onddo Gaztetxeari, antolakuntzan emandako laguntzarengatik, bai Villabonako herriari, gazteriari eta Udalari, egunaren prestaketa lanetan izandako harrerarengatik.

ADUNA ▶ KULTUR ASTEA



Igangeko herri bazkarian oso giro ona izan zen. HITZA

Kultur Astearen balorazio oso ona

Adunako Kultur Astea herenegun amaitu zen eta antolatzaileek oso balorazio ona egin dute, bai ekitaldiek izan duten partaidetzarengatik, bai herritarren inplikazioarengatik ere. Igandean bederatzilagunek hartu zuten parte bakailao lehiaketan. Lehen bi sailkatuak Loli Olasagasti eta Luis Zabala izan ziren. Ondoren egin zen herri bazkarian jende ugari bildu zen. Girorik ez zen faltatu bazkarian zehar egin zen sagardo lehiaketarako. Bazkaltzen ari zirenek erabaki zuten, Isastegi sagardotegia izan zen irabazlea eta ondoren Begiristain. Bazkalosteko Xabier Amurizaren bertso emanaldira jende gehiago azaldu zen. Pozik daude, beraz, antolatzaileak eta orokorrean inpresio oso onak jaso dituzte ekitaldietan egon diren herritarrengandik.

HERNIALDE ▶

Ipuin kontaketa saioa Nerea Herrarterekin

Hernialden ipuin kontaketa saioa izango da bihar. Gal-tzaundi Euskara Taldeak antolatuta. Nerea Herrartere ipuin kontalaria eskainiko du saioa, herriko liburutegian, 18:30ean.

ANOETA ▶

Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa gaur

Anoetako Udalak antolatuta, gaur Pello Añorgaren eskuetik ipuin kontaketa saioa izango da. Udal liburutegian izango da, 18:00etan, HHko 2. eta 3. maila eta LHko 1., 2. eta 3. mailako haurrentzat.

VILLABONA ▶

Iker eta Eneko Pou anaiak, gaur Mendi Astean

Era askean egindako bi igoeren berri emango dute Gurea aretoan 20:00etan

I. GARCIA

Iker eta Eneko Pou anaiek Kaliforniako Kapitain horma mitikoan era askean egindako lehen igoera nazionalaren kontakizuna egingo dute Mendi Astearen baitan. Hitzordua gaur izango da, arratsaldeko 20:00etan, Gurea aretoan. Eskaladaren irudi bikainak eta Kalifornian kokatuta dagoen Parke Nazionalaren ikuspegi ederra iksteko parada izango da.

Iker Pou munduko eskalaztaile onenetakoen artean dago. Bestek beste, *Action Directo 9a* bidea lortzen munduko hirugarren eskalaztailea izan da. Gaur egun, eskaladaren zabalkundean eta irakaskuntzan dago murgilduta. Eneko Pou alpinista polifazetikoa da, alor guztiak menderatzen ditu eta mendiari profesionalki emana dago. Egun, *Al filo de lo imposible* saioko kidea da.

IRURRA ▶

Mantentze gimnastikako bilera, gaur arratsaldean

I. GARCIA

Irurako Udalak antolatuta duen mantentzeko gimnastika ikastaroko bilera egingo da gaur, 17:00etan, udaletxean. Bilera honetan parte-hartzaileek zehaztuko dute ikastaroaren ordutegia.

Sukaldaritzako ikastaroari dagokionez, gaur hasiko dira klaseak Gazte Alaia elkartearen. 19:30etik 21:30era izango da ordutegia eta astearteak eta ostegunak egunak. Gabonak bitartean, sei saio izango dituzte eta festa horietarako janari bereziak eta postreak landuko dituzte. Gabonen ondoren janari osasungarriagoak nola prestatu erakutsiko zaie lau saioetan zehar.

HERNANI OKINDEGIA

sulabe

ogi egin berriena

Tel.: 943 55 40 50 • HERNANI

BALIARRAIN ▶ KULTURA

Haur Eskola inauguratu dute

Herenegun eguerdian izan zen irekiera ekitaldia, Jubilatu Egunarekin batera



Bixente Zubeldia, Martzelino Dorronsoro, Maite Larrañaga, Ramon Martinez, Imanol Olano, haur eta gurasoak aurrekuaren unean. MADDI SOROA

MADDI SOROA

Irailean zabaldu zen arren, igandean inauguratu zuten ofizialki Haur Eskola Baliarrainen. 12:00etan eman zitzaion hasiera irekiera ekitaldiari. Herriko alkateak, Martzelino Dorronsorok eta Maite Larrañaga Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko teknikoak zinta moztu zutelarik Garazi Urkola eta Markel Irastorza, Haur Eskolako haurrekin batera. Bertan izan zen Ramon Martinez Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Gipuzkoako delegaritzako zuzendaria ere.

Zinta moztu ostean, aurrekuak dantzatu zuten txistulariaren laguntzaz. Ondoren, herriko alkateak diskurtso laburra eskaini zien Haur Eskola atarira inguratutako lagunei. Bertara joandakoak eskertuz hasi zuten hitzaldia Martzelino Dorronsorok. Haur Eskolaren irekiera benetan garrantzitsua dela azpimarratzearekin batera, proiektua aurrera eramateko egindako lan gogorra gogoratu zuen jarraian. Ondoren, Baliarrainen izan ziren Jaurlaritzako ordezkariak eskertu zituen bertan izan eta emandako laguntza guztiengatik. Amaitu aurretik, ordea, zera gogoratu zuen «eskola hau ez da soilik Baliarraingoentzat. Jendeak ez dezala beldurrik izan hona



Haur Eskola nola geratu den ikusteko aukera izan zuten denek...s

etortzeko, oso gustura hartuko ditugu bertakoak ez diren haurrak ere».

Alkatearen hitzek, Imanol Olano Tolomendiko ordezkariari eman zioten pasoa. Olanok, Udala eta Jaurlaritza eskertzearekin batera, horrelako proiektuak oso garrantzitsuak

direla azpimarratu zuen. Baita «guztiok esfortzu berezi bat egin beharra daukagu herriak bizirik irauteko» adierazi ere.

Amaitezko, apaizak Haur Eskola bedeinkatu eta herritarrekin eraikina ikusteko aukera izan zuten. Ondoren, *lunchaz* gozatu zuten denek.

Giro goxoan izan dute Jubilatu Eguna

Igandean izan zuten Baliarrainen Jubilatu Eguna. Goizeko hamaiketako mezarekin hasi zen ospakizuna. Ondoren, berriz, Haur Eskolaren inaugurazio ekitaldira batu eta eraikina ikusteko aukera izan zuten jubilatuek. Geroago, inaugurazioko *lunchaz* gozatu zuten bertara inguratutako gainontzeko herritarrekin batera. 13:00etan, berriz, *Bakardadea eta 3. adina* izenpeko hitzaldia izan zuten Adin Adiren eskutik. Baliarraingo Kultura zinegotziak esandakoaren arabera, oso gustura egon omen ziren jubilatuek, izan ere, hitzaldia modu alai eta erakargarrian antolatutik baitzegoen. Gainera, jubilatuek parte hartze handia erakutsi zuten. Hitzaldiaren ostean, Zartagi jabetxean bazkaria izan zuten, Janire Zubeldia eta Ane Garmendiaren trikiti piezez alaituta. Amaieran, jubilatuek opari bana jaso zuten urtero legez.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetalde. Medikua: 65 23 39
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxis: 67 04 20
▶ Taxis (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santamaria I. Nafarroa etorbidea 2 (Tolosa) 943654610
Plaza M. Elbarren 36 (Leitza) 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoetalde. 687 41 00 22

anoetalde@tolosaldeko hitza.info

Ibarralde. 687 41 00 32.

ibarralde@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leizalde. 687 41 01 18.

leizalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

GALDUTAKOAK

Txakurra. 6 hilabeteko hispanier txakur marroia galdu da Urkizuko bidean. Aurkitzen duenak deitu 943 65 54 12ra.
Pultsera. Urrezko pultsera galdu dute Ibarra eta lurreamendi artean. Balore sentimental handia du. Deitu 943 671511 edo 679 316122 telefonoetara.
Diru eskertza izango da.

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da asteburuetan lan egiteko.
943 69 19 33.

SALGAI

Etxebizitza. Anoetako plazan apartamentua salgai. Guztiz berritua, berokuntza sistema eta gasarekin. 612 767 764

GUTUN@K ▶



▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Betikoan udal interesak (eta 2)

Joan den urriaren 5ean egindako osoko bilkuran onartutako Boko-Bideko lurrei buruz planteatutako aldaketari dagokionez, honako zehaztasunak egin nahi ditugu:

1. Uztak ez badu proiektu honen edo Udalak etorkizunean planteatzen beste edozein proiektuaren berri izan, berak nahi ez duela eta interesatzen ez zaiolako izan da. Horretaz gain, proiektuaren berri ez zutela ez da egia. Boko-Bidegunea aldatzeko beharrezko berri, beraiek dioten bezala, beraiek alkatetzan zeuden azken legealditik zeukatzen eta Errekondone baserriaren eskariz, hain zuzen ere. Baserri hau izan zen Udalarai etxea birmoldatzeko eskaria egin ziona eta ez bereziki nekazaritza-ustia-pena hobetzeko, baizik eta behar bezalako txalet bat egiteko. Baserria kokatuta dagoen luraren %30aren jabe dela ikusita, jabea

erretiratu dagoela ikusita, semea baserriaren jabeak erretiroa gertu duela ikusita, ustiapenen tamaina kontuan hartuta eta egungo bideragarritasun ekonomiko eza kontuan hartuta, alkateari eremu guztiaren egoera kontuan hartuta berrantolatzeko beharra planteatu zitzaien. Eta zer egin zuen alkateak? Gaia urtebetez mahai gainean eduki, eta udal hauteskundeetarako egun eskas batzuk gelditzen zirenean Errekondone baserriari txaleta egiteko lizentzia eman, orain dela 19 urteko arau subsidiarioan oinarrituz, eta jakinda arau berri batzuk egitea beharrezkoa zela eta herrian jada beste behar batzuk zeudela.

2. Arau subsidiarioak berraztertze beharra ez da egungoa, haiek alkatetza hartu zutenetik dator gutxienez, eta noski, ez zuten ezer egin gai horrekin.

Errazagoa da besteek gauzak egitea eta denak kritikatzeko elkartzea. Une hauetan udalerrian

ez dago etxebizitza eskaintzarik eta arauen berrazterketarako egindako gizarte eta hirigintza azterlanaren arabera, dagoen eskaerari erantzuteko 600 etxebizitza egin beharko lirakeke. Udalak planteatutako aldaketek, ez bakarrik Boko-Bidekoak, eguneko zentzorenak eta Argindegiko etxebizitza babestuenak ere. Arau berriak egiten diren arte herria geldirik ez egoteko beharri erantzuten diote eta Ibarren garapen osoa kontuan hartuta daude eginda.

3. Boko-Bideko aldaketa zehatzarekin jarraituz, ez dugu zertan esan behar jaun-andre hauek operazioaren onurak bakarrik ikusten dituztela, baina ez dute hitz egiten aldaketak ekarriko duen hirigintza-kargaz. Boko-Bide kaleko eraikin guztien eraistea, gertatzen diren espazio libreak, erreka-bazterreko pasealekua, Udalarai lagabekak, eta abar. Eta noski, lotsagabeki gezurretan daude portzentaiaz eta aparkalekuez ari direnean.

Portzentaia hektarea bakoitzeko 100 etxebizitzakoa da (Ibarren jada existitzen direnak baino dezente baxuagoa) eta etxebizitza bakoitzeko 1,5 aparkaleku aurrelari kontuan hartuta. Eraikuntza-portzentaia hauek Ibarren jardura-umitate guztietan hartuko dira kontuan.

4. Errekondone baserriari dagokionez, egia esan ez digu pena handirik ematen, izan ere konpentsazio-proiektuaren bidez «dirukopuru itzel» horren %30 jasoko duela eta kontuan hartuta lizentzia eskatu zuen «baserria» ez dela eraikitzen hasi, suposatzen dugu ez diola gehiegi axola. Hala eta guztiz ere, Udalak ibararren interesen alde egingo du une orotan eta ez dirudi oso logikoa etxebizitzak behar diren unetan, gizon batek herriari eta lurren %70aren jabea berak nahi duena egitera behartu ditzakeenik. Legearen egoera hauek jasotzen dituzten mekanismoak daude, eta are gehiago, kontuan hartzen badugu gizon hau ez dela baserri bizi.

Era berean argitu nahi dugu gizon honek eta bere arkitektoak Udalararekin hainbat bilera izan dituela eta azkenekora ez zela agertu ere egin. Gauza bera gertatzen da Uztako gizon-emakumeekin. Hauei legegintza hasieratik bertatik Udaleko batzorde guztietara joateko aukera eskaini zitzaion eta uko egin dute. Errazagoa da gai berruz ezer ez jakin eta gero lan egiten dutenei buruz besteak eta bi esan. Azkenik esan Udala arau subsidiarioak izango diren aurrerapena egiten ari dela eta bere garaian arau berruzko erakusketara egingo duela argibideak emateko eta ibararren udalari egoki ikusten duten hori proposa diezaioten biltzeko maneiatzailerik gabe. Era berean, esan nahi dugu ez dugula komunikatu-gerra bat hasi nahi Uztarekin (antza denez horretara bakarrik jardungo dira), izan ere lan asko dugu beraiek ahal izan zuten egin ez duten hori aurreratu ateratzen.

TXELO ROMEO (EAJ-EA) ▶ IBARRA

IBARRA ▶ KIROLAK

Ezin baloia sarean sartu

Defentsa gogorra eta etxekoan huts egiteak izan ziren galtzearen arrazoiak

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarra areto futbol taldeak beste porrot bat batu zuen larunbatean Portugaleteko Jarrilleros taldearen aurka, 0-1 galdu ondoren.

Jarrilleros taldea bere ate inguruan egon zen ia partida osoan hesi indartsua osatuz eta Ibarra koei golak egiteko aukerak oztopatuz. Izan ere, hori izan zen arrazoi nagusietako bat Ibarra koei huts egitea ez gain etxekoak bizkaitarren atean golik ez sartzeko.

Lehendabiziko zatian Ibarra

ruk aukera garbiak izan zituzten golak egiteko, baina ez zuen baloia atean sartzen asmatzen. Portugaletearrak apenas gerturatu ziren Zabaloren atera eta ondorioz 0-0 heldu ziren atsedendaldira.

Bigarren zatian gauzak antzera gertatu ziren: Jarrilleros taldea bere arean sarturik eta Ibarra koei gola egiteko ahaleginetan.

Bizkaitarrek burutu zuten kontraeraso bakarrean baloia sare barrura sartzeari lortu zuten ibararren etsipenerako. Hala ere, Ibarra ez zuen burua



Galdu egin zuen Ibarra. I.T.

makurtu eta erasoan jarraitu zuen. Azkenean, Ibarra ez zuen golik egin eta 0-1eko markagailuarekin amaitu zen partida.

Bestelakoak dira jubenilen ligatik iristen diren berriak, Lauburuk berriro ere irabazi egin baitzuen. Beraz, puntuak etxean geratu ziren nagusien aurretik jokaturako larunbateko partida eta gero. Sestaoren aurka jokatu zuten gazteek eta 7-1 hartu zituzten mendeantzen. Azkenarekin 56 gol batu dituzte 6 partidetan, 9 gol bataz beste partida bakoitzeko.

IBARRA ▶

Ohiko osoko bilkura izango da gaur udaletxean

I.TERRADILLOS

Gaur ohiko osoko bilkura izango da Ibarra koei udaletxean 20:00etan, Txelo Romeo Ibarra koei alkatea eta Udala osatzen duten ordezkariak. Bertan, Argindegi 18-20 lursailen eta eraikinen inguruan, hiritartze-obra guztietako kontratuaren esleipenari buruz eta ordainsari-igoerari buruzko udal akordioaren inguruan hitz egingo da besteak beste.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47- behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@inmoernio.com
www.inmoernio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m²ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Berrobi. 2 logelako pisu merkea.

Toki lasaia. 141.839 Euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisua, trasteleku eta garajearekin.

Ibarra. Julian Gaiarren. Berritutako etxebizitza salgai. 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna.

Berogailuarekin. Guztiz kanpoaldera.

Ibarra. Eraikuntza berriko 2 logelako etxebizitza salgai, garajea aukeran.

Ikaztegieta. Eraikuntza berriko etxe abikia salgai. 270.455 euro.

Legorreta. 3 logela, egongela, sukalde eta bainugela. Berokuntza

eta trastelekuarekin. 142.440 euro.

Ordizia. Berritutako etxebizitza merkea salgai.

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxe salgai 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. Santa Klara. 4 logela.

Berokuntza. Igogailua. Bizitzera sartzeko moduan.

Tolosa. Santa Klara. 2 eta 3 logelako pisuak salgai, sukalde, egongela eta bainugelarekin. Berokuntza. 167.090 eurotik aurrera.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. 2 logela, sukalde, egongela eta trasteleku.

Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Amaro zuzen oso egoera onean dagoen etxebizitza salgai.

Tolosa. Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Gernikako lorategian, 108 m². Pisu ederra salgai.

Trastelekuarekin.

Tolosa. Foruen Etorbidean guztiz berritutako etxebizitza salgai. Ikustekoa!!!

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrarekin. Aukera paregabea!

Tolosa. Lurrarrendi ibiltokia. 4 logelako etxe abikia.

Tolosa. Lurre inguruan. Guztiz berritutako 2 logelako etxebizitza.

Tolosa. Belate. 3 logela eta 2 bainugela. Berritua.

Tolosa. Erdialdean. 130 m²ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego bezala egokitua). Estreinatze, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Emeterio Arrese. 110 m², 3 logela, bi bainugela, garajearekin.

Villabona. Kale Nagusian hainbat etxebizitza salgai. 132.223 eurotik aurrera.

Villabona. Etxeondo. Pisua ganbara eta garaje ibiarekin.

Villabona. Kale Berrian. Eraikuntza berriko etxe salgai. Garaje bikoitza ibia aukeran.

Villabona. Errota. Pisua ganbara eta garaje ibiarekin.

Villabona. Larrea. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

LEITZA ▶ KULTURA-KIROLA

Jurramendira igo eta ardandegia ikusiz, egun pasa igandean

Mendibil mendi taldeak eta Kultur Taldeak antolatuta, izena emateko epea zabalik dago ohiko lekuetan, osteguna arte

JAIONE ASTIBIA

Heldu den iganderako hilak 28, egun pasa prestatu dute elkarrekin Mendibil mendi taldeak eta Leitzako Kultur Taldeak.

Horrela bi aukera daude egun horretarako irteeran. Alde batetik Jurramendi igoko dute eta bestetik, Lakarren dagoen ardandegira bisita. Eguerdian bi taldeak elkarrekin, bazkaria izanen dute bodega horretan bertan.

Jurramendik 1.044 metro ditu eta historia dezente mendi da, bestek beste 1978.

urtean frankista jasangaitezke eragin zuten sarraskia dela eta. Gailurreraino, gurutzeak nonahi dituen txenda garbia dago. Eta abiatu ere, hainbat lekutatik egin daiteke bertara, beste hainbeste historia eta arteren jabe den Iratxeko monastegitik esaterako. Hori da aukera bat.

Mendia beharrean, zelaian ibili nahigo dutenek, Lakarren dagoen Lezaun ardandegia ikusteko aukera izanen dute, bertan egiten duten ardo ekologikoaren prozesu guztiaren azalpenak jasoz eta ikusiz, eta

baita dastatzu ere. Buruko 6 euro ordaindu behar dira. Edonola ere, bazkaritan bi taldeak elkartu eta «otordu bikaina eta giro hobea» izanen dute eskura. Kasu honetan 27 euroren truk.

Igande pasa joan nahi duenak, beraz, Maimur edo Astiz liburudendan eman behar du izena, bere aukera zein den adieraziz, osteguna baino lehen eta beti ere, 15 euroko fidantza ordainduz.

Igande goizean, 8:00etan bilduko dira herriko plazan eta autobusez eginen dute bidai.



«Jarri dezate Maxurrenean, herriak eskatzen duna»

LEITZA ▶ Horixe aldarrikatu zuten ostiral gauean Etxeturian, Maxurrenea herrintzat ekimenak, txanda honetan elkarrekin honen eskutik, antolatu zuten Leitza eta Araitz arteko bertso-afari desafioan. Migel Mari Elosegiz zuten gai-jartzaile-epaile, Diego Riaño, Unai Elizasu, Oskar Estanga eta Aritz Salaguetak. Beste gaien artean, kartzelakoan, bere jabeak Maxurrenea zertarako utzi zuten eta orain ikusiko balu zer esanen zukeen adierazi behar izan zuten: «Maxurrenean idatz dadila/leitzar kulturaren nobela», baina «Maxurrenen etorkizuna gaur/berdez pintatzen ari da», argitu zuten. «Zer edo zerbait etxe horretan/noski, herriaren alde» erabaki zuten, hitzordua «eta hurrengoa Maxurrenea/herriarena denean», egin. J. ASTIBIA

ARESOS ▶ KIROLA

Mikel Olazabal eta Jon Betelu DV Torneoaren finalerdietara iritsi dira

Finalerako txartel bila Urretxura joatekoak dira hurrengo abenduaren 11an

J. ASTIBIA

Mikel Olazabal Aresoko pilotari gaztea, pilotako DV torneoaren finalerdietan da, Jon Betelu aldaztarra lagun duela, larunbatean jokatu zuten saikapeneko azken partidua irabazi eta gero.

Renobales eta Galarragaren aurka, Tolosako Beotibar pilotalekuan jokatu zuten parti-

dua, 22-10-eko emaitzarekin irabazi zuten, markagailuari erreparatu, uste baino errazago egin ere gainera. Izan ere Antiguoko Sariketako buruko partiduan ikusi zuten elkar bi bikote hauek eta orduan, lan asko egin ondoren, gutxieneko aldearekin izan arren, haien aldeko markagailua suertatu zen 22-21eko. Kasu honetan, ordea, beste aldera, alderantziz

gertatu da: Beteluz berriz ere erakutsi zuten pilotari langilea dela, pilotari bertatik jarraituz eta eskura zuenean ederki emanez, eta Olazabalek bere aldetik, ezker esku bikaina duela frogatu zuten Beotibarraren bilduako jendetzaren aurrean, aurkariak txokora botatako hainbat pilota harrapatu, zabalera botaz erantzun eta tanto eginez bukatuz. Sakez hiru tanto egin zituen. Esan behar, aurkariak ere pilota dezentegaldu zituztela, Galarragak batez ere.

Horrela bada, Olazabal eta Beteluz abenduaren 11an jokatu dute finalerdiko partidua, Urretxun, Apezetxea eta Merinoren aurka. Partidu horretatik aterako da sariketa honetako finala jokatu duen bikotea.

LEITZA ▶ KIROLA

2-2-koarekin etxeratu da

Emaitza hori eskuratzea zaila izan zaie

J. ASTIBIA

Gazte Berriak 2-Aurrera 2, horixe izan zen igandean Atarrabian jokatu zuten futbol partiduan azken emaitza. Baina itxuraz ematen duen baino nekezago suertatu zitzaizen leitzarrei puntu hori eskuratzea, izan ere, partidua hasi eta 45. segundurako, 1 eta 0ko markagailua aurka jarri zitzaizen. Zorua hondarrezkoa zuten zelaian eta «laisterka ibiltzea bakarra ere asko kostatzen zitzaizen jokalariei», Hitzari adierazi ziotenez. Hala

ere, atsedenera banako berdinketarekin joan omen ziren. Bigarren zatian, hobekixeago aritu omen ziren lanean, gol aukera garbiak sortuz. Azkenean, besteen bigarren gola jaso eta partidua bukatzea zioala, etorri zen berriz ere berdinketako. Golak Eneko Barberiak eta Jabi Urriagak sartu zituzten.

Hiru puntu eskuratzeak laisaiago ibiltzeko moduan utzi zioten etxeok, hurrengo asteburuan atsedena baitute. Indarberitzeko aukera dute orain.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

‘Lagun ezazu HITZA laguntzen’



▶ HITZAren harpidedun laguntzaile bazara, ARANZADI zientzia elkarteak argitaratutako Koro Muro Arrieten TOLOSALDEA BERE TESTAMENTUETAN (1760-1860) liburua DOAN eskura dezakezu.

▶ DEITU ETA HAR EZAZU PARTE 10 LIBURUREN ZOZKETAN **943 65 56 95**
ZU IZAN ZAITEZKE IRABAZLEETAKO BAT!

(11:00-13:00 / 16:00-19:00)

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko azaroaren 23, asteartea ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Altsatur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzola, Anotoa, Ballarain, Belaurtza, Berasteg, Elduain, Herrialde, Iturr, Iturr, Larradi, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orens, Tolosa, Villabona, Zizurki.

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jaurritzaile.
Kultura Salla

Eusko
Jaurritzaile.
Kultura Salla

Eusko
Jaurritzaile.
Kultura Salla

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

10

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)



943 30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Ikaztegieta. Nerea Herrarte ipuin kontalaria. Bihar, 17:30ean, kiroldegian.

Tolosa. Ezker abertzalearen batzarra. Bihar, 20:00etan, udalbatzar aretoan.

Tolosa. Inauterietako karrozen eta konpartsen bilera. 19:00etan, Kultur Etxean.

Tolosa. Euskadiko Liburu-Ganbarak antolatuta, Liburu Azoka. Igandera arte, San Frantzisko ibiltokian.

Tolosa. Inauterietan Ttentek astaldi taldean dantzan atera nahi dutenek bihartik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara San Frantzisko parrokiko lokaletan agertu behar dute.

ERAKUSKETAK

Ibarra. San Bartolome jaietako argazkiak. Abenduaren 3a bitarte, Benito Izagirre kultur etxean.

Tolosa. Anselmo Elizalde margolari tolosarrak bere koadroak ditu ikusgai Fronton kafetegian. Tolosa eta eskualdeko paisaje ugari ikus daitezke.

Tolosa. Isabel Mujikaren koadroak Sorron dendan.

HITZALDIAK

Leaburu. Guraso Eskolan elkarbizitazarako heziketa familian eta heziketa ereduie buruz hitz egingo da. 18:00etan, udaletxeko gazte gelan.

Tolosa. *Boluntaritzan, nondik nora?* hitzaldi-solasaldia. 19:00etan, Kultur Etxean. Maider Martiarena soziologoaren eta Itziar Arana gizarte hezitzailearen eskutik. Gipuzkoako Gizalder-Boluntariotzak antolatuta.

IKUS-ENTZUNEZKOA

Villabona. Aizkardi elkarteak antolatutako Mendi Astea: *Kapitaina eta Narancoren mendebaldeko horma era askean*, Iker eta Eneko Pou anaien emanaldia. 20:00etan, Gurean.

ZINEMA

Tolosa. *Resident Evil 2 Apocalypse*. 19:30ean eta 22:30ean, Leidorren. Ikuslearen Eguna.

Santa Zezilia eguna

TOLOSALDEA ▶ Musikariek euren eguna ospatu zuten atzo; Tolosa eta Villabonako musikariek egunerako prestaturiko abestiak eskaini zituzten



Musika eskolatik abiatuta, Tolosako kaleetan barrena euren musika zabaldu zuten musika eskolakoek. I.T.

MADDI SOROA

Musikariek euren eguna ospatu zuten atzokoan, Santa Zezilia eguna musikariarena izaten baita eta hori aitzakiazat harturik herri desberdinetako taldeak atera ziren euren musika eskaintzera.

Tolosako Eduardo Mokoroa musika eskolako ikasleak larunbatean hasi ziren Santa Zezilia ekitaldiekin; horrela, Mi-



Instrumentu desberdinak joz aritu ziren Fleming eskolan. HITZA

guel Angel Morenok zuzenduta larunbat arratsaldean euren musikarekin Tolosako kaleak girotu zituzten.

Atzo ere musika eskolako talde berezi bat, akordeoi, bibolin eta perkusioz osatua Santa Zezilia egunerako bereziki prestatu zituzten pieza bereziak joaz abiatu ziren eskolatik Patxi San Sebastianek zuzenduta. Ondoren Musika Banda atera zen Alde Zaharrera, eta giro polita sortu zuten Tolosako kaleetan..

Villabonan ere, musikariek egin zuten erakustaldia euren egunean. Fleming eskolako ikasleek musika emanaldia eskaini zuten eskolan, LHko haur guztiek parte hartu zutelarik bertan. Txikienek abestu eta dantzatu egin zuten; zaharra-goek, berriz, abesteaz gain musika tresna ezberdinak jo zituzten, txirulak eta perkusiozko instrumentuak esaterako. Bestalde, etxetik ekarritako beste haibat musika tresna ere jo zituzten, hala nola, esku soinua, tronpetak, bibolina, gitarra, zeharkako txirula, eta bala eta panderoa. Bertaratu zirenak oso gustura egon ziren musika emanaldiaz gozatzen.

Zorionak musikari guztiei bere egunean!

ZORION AGURRAK ▶

AGURTZA LARRAÑAGA

Aran irletako expeditzioa errepikatzeko eguna iritsi bitartean ilusio, maitasun eta indarrez beteriko besarkada zutaz.

Munduko etsai indartsuena ere ez delako gure sentimendu eta oroitzapenak suntsitzeko.

TIOCFÁIDH ÁR LÁ!!

HITZA,
zorion agurren
tarte

Mesedez,
argazkia bi egun
lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behe
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA